

## Etxean itotzeko zorian

**A**irearen poluzioa uste baino arazo larriagoa da Europan. Urte honen amaiera aldera emango dira ezagutzera Europako Elkarteen osasun-erakundeek burutu duten osasun-txostenaren emaitzak, baina datu batzuek argia ikusi dute jadanik. Gure hirietako poluzioak giza osasunarengan duen eragina aztertzea zen ikerlaren xedea eta behin-behineko datuen arabera, zer ikertu franko legoke! Parisen, esate baterako, poluzioarekin loturiko heriotzak gero eta ugariagoak dira: urtero 350 kasu eman ohi dela dio Frantziako Osasun Publikoko Erakundeak plazaratu berri duen txostenak.

Heriotza horien eta aire-poluzioaren arteko lotura egitea zilegi bada ere, faktore gehiagok eragin dezakeela ez da ahaztu behar. Nolanahi ere, ibilgailuen trafikoak eta zenbait industriak isurita-

ko poluitzaileak arazo-iturritzat jo dira batere zalantzarik gabe. Zehatzago esanda, smog delakoak zuzenean eragindako osasun-arazoak gero eta maizago ematen direla ohartarazi dute zientzialariek.

Ikerketa gehiago egitearen beharraz halaber, ez dago zalantzarik. Azterbideak asko eta era askotakoak dira eta epe luzerako proiektuak egin beharko dira eta horretarako jakina, dirulaguntzak beharrezkoak dira. Eskari hori luzatuko dute ikerlariak apirilean kaleratu den txostenean. Eztabaidarako balio beza.

## Ez da aktibatzen

**A**skoren iritziz, dislexia ezin liteke gai-xotasun larritzat har; horrek alabaina, ez du disfuntzio horren garrantzia ezkutatu beharko, milaka haurren garapena oztopatu egiten baitu. Eta hona, dislexia hobeto ezagutzea erraz-



**Dislexiaren zergatia hobeto ezagutzea erraztuko duen aurkikuntza egin berri da. Jakina zen kortex zerebralean dauden funtsezko bi guneren funtzioak zeintzuk ziren, baina ez bertan dagoen hirugarrenarena. Ikertzaile-talde batek frogatu duenez, hirugarren honek zubi-lana egiten du, eta eginkizun hori betetzen ez duenean sortzen omen da dislexia.**

tuko duen aurkikuntza: garuneko disfuntzioa non gertatzen den argitzea lortu bide du ikertzaile-talde batek. Jakina denez, irakurketa bezalako iharduerak zuzen burutzea errazten duten funtsezko bi gune daude kortex zerebralean (ezker belarriaren gainean). Horien ondoan, hirugarren gune bat dago, baina orain arte ikertzaileak ez dute bere funtzioa bereizterik lortu. Berriki jakin ahal izan dugunez, hirugarren zati hori bi guneak koordinatzen dituen zubia da, dislexikoei aktibatzen ez zaien mekanismoa, hain zuzen.

Emaitza horretara iristeko, ikertzaile-taldeak garunaren aktibitatea neur-tu zien test baten bidez haur multzo bati. Datuek egiaztatu zuten, dislexiarik ez zuten haurren

kortex zerebraleko bi zatiek ongi burutu zuten beren lana: zati batek irakurritako hitza identifikatu zuen eta besteak hitza zatikatu eta bere soinua garunean irudikatu zuen, bi funtzioen arteko zubia hirugarren guneak egin zuen bitartean. Dislexikoen kasuan, bi zatien arteko zubia ez zen aktibatu eta beraz, irakurle dislexikoak ezin zituen hitzak bereganatu, bi garun zatien arteko disfuntzioa sortuz. Koordinazioaren funtzioa betetzen duen gunea zein den jakinda, ikertzaileak itxaropentsu agertu dira. Dislexiaren diagnostia egitea eta arazo hori gainditzeko behar den hezkuntza-sistema egokia eskaintzea errazago izango da hemendik aurrera.



**Mila aldiz ikusitako irudia duzue ondokoa. Paris eta bere xarma itotzear daudela dio azken osasun-txostenak. Poluzioaren eragina eguneroko ihardunetan gero eta handiago dela dio txosten horrek.**

